

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gordexolako Udala**

Udal jabari publikoan ibilgailuak espaloietan zehar sartzegatik, aparkalekuetarako bide publikoko erreserbegatik eta edozein motatako salgairen zamaketa eta husketagatiko 2019 eta 2020 ekitaldietako tasak eta ordaintzeko epea onestea.

2020ko urriaren 5eko 227/2020 zenbakiko Alkatetza Dekretu bidez, Udal jabari publikoan ibilgailuak espaloietan zehar sartzegatik, aparkalekuetarako bide publikoko erreserbegatik eta edozein motatako salgairen zamaketa eta husketagatiko tasak onetsi ziren.

Erroldei dagokienez, interesatuek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak edo alegazioak egin ahal izango dituzte honako arauei jarraiki:

- Onarpen-epea*: hamabost egun, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.
- Aurkezteko bulegoa*: Udalaren Erregistro Orokorra.
- Erakundea*: Alkatetza.

Ordaintzeko epeak honako hauek dira:

- *Borondatez ordaintzeko epea*: 2020ko urriaren 30etik abenduaren 15era bitartean, bi egunak barne.
- *Betearazpen epea*: 2020ko abenduaren 16tik aurrera, betearazpen-errekargua eta interesak gehituta, hala badagokio.

Ordaintzeko leku eta moduari dagokionez, honakoa bete behar da:

- Ordainketa bankuaren bidez helbideratuta dutenek ez dute izapiderik egin behar izango, banku-helbideratzearen kontua berbera bada. Udalak ordainketarako izapideak egingo ditu. Helbideraturiko ordainagiriak borondatezko epearen azken egunean kobratuko dira.
Ordainagiriak helbideratu ahal izango dira; horretarako kontu zenbakia jakinaraziko da Udal bulegoetan. Helbideratzeko azken eguna urriaren 20a izango da. Egun horretatik aurrera egindako helbideratzeak hurrengo ekitaldietarako hartuko dira kontuan.
- Ordainketa bankuaren bidez helbideratuta ez dutenek Kutxabankeko edozein bulegotan aurkeztuz ordainduko dute. Era berean, ordainketaren kudeaketa bere banku-erakundeari egitea eska diezaioke, horrek onartzen badu. Kutxabanke bategiaren bidez ordaindu beharko du.
- Borondatez ordaintzeko epea igarota, automatikoki betearazpen epea hasiko da, %5eko betearazpen-errekargua gehituta.

Premiamendu-probidentzia jakinarazi eta hilabete bat igarota, errekargua %20koa izango da, eta berandutzako interesak kobratuko dira, borondatezko aldia bukatzen denetik, eta baita legez eska daitezkeen kostuak ere.

Iragarki hau zergadunentzat eta kontzeptu horiek ordaindu behar dituztenentzat jakinarazpen kolektiborako erabiliko da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko mar txoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrek 100. artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat.

Errekurtsoei dagokienez, Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren 13.2 artikulua araberan, birjartze errekurtsoa Alkatetzaren aurrean aurkeztuko da hilabeteko epean, zergadunen edo ordaintzera behartuta daudenen errolda edo matrikulak jendaurrean egoteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.



Aldizka mugaeguneratzen diren eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, errekurtsua ordainketa egiteko borondatezko aldian jarri ahal izango da, edo hilabeteko epean, aipatu aldia amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gordexolan, 2020ko urriaren 13an.—Alkatea, Ángela María Eguía Liñero